

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

2. MAILA (B2)

Entzumena eta irakurmena

EREDUA: 13.1-2EI1

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa honek **bi zati** izango ditu:

 Entzumena

 Irakurmena

ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposaturiko denbora
Entzumena	10	20	25 minutu inguru
Irakurmena	10	20	45 minutu inguru



ENTZUMENA

Ondoren, hiru testu entzungo dituzu. Testuak **bi aldiz** entzungo dituzu.

Egitekoa: Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

** Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko duzu. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.*

1. TESTUA: Usain txarra

Orain, **minutu eta erdi** duzu **lehenengo testuari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko. 0 galdera adibidea da.

Adb.:

0.- Tabernen inguruan bizi direnen arazoa zein izan ohi da?

- a. Biharamuna.
- b. **Zikinkeria.**
- c. Begietatik ere sartzen zaien usain sarkorra.

1.- Zer erabaki dute Barakaldon?

- a.- Neurriak hartzea hilabete batzuetan egoera aldatzen ez bada.
- b.- Portaera desegokiak zein diren zerrendatzea.
- c.- Kanean pixa egitea galaraztea.

2.- Zer diote araudia apurtu dutenei buruz?

- a.- Guztiek 150 euro ordaindu behar izan dutela.
- b.- Gehienek berehala ordaindu zutela ezarritako isuna.
- c.- Gehienak adinez nagusiak direla.

3.- Zer ondorio izan dute Barakaldon hartutako neurriek?

- a.- Isun gehienak asteburura mugatu dira.
- b.- Isunen kopurua murriztu egin da.
- c.- Emaizta ona ikusita, neurri zigortzaile gehiago ezarriko dituzte.

4.- Norena da pixaren aurkako ekimena Donostian?

- a.- Barakaldon bezala, udalarena.
- b.- Barakaldon ez bezala, auzokideena.
- c.- Udalarena eta auzokideena.

5.- Zer dio Parte Zaharreko auzokideen ordezkariak?

- a.- Ohitura bihurtzen ari zenari aurre egin behar zitzaiola.
- b.- Bero egiten duenean ondorioak txarragoak direla.
- c.- Ohitura bihurtzen ari zenak bere horretan jarraitu behar zuela.

6.- Zein da auzokideen ordezkariaren ustea?

- a.- Arau zibikoek ez dutela ezertarako balio horrelako kasuetan.
- b.- Jendeak etxean egingo ez lituzkeen gauzak etxetik kanpo egiten dituela.
- c.- Besteen zapatetan jartzen garenez normala dela arauak ahaztea.

7.- San Sebastian eguna, sagardo eguna ... Zer gertatzen da biharamunean?

- a.- Kanean ez ezik, atarietan ere nabaritzen direla ondorioak.
- b.- Egun horietan kaleak ez direla goizean goiz garbitzen.
- c.- Garbiketa-lanak direla eta, auzokideak nekez atera ahal direla kalera.

IDATZI ERANTZUNAK

0.-B	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

ENTZUMENA

2. TESTUA: Joko Olinpikoak

Orain, **minutu eta erdi** duzu **bigarren testuari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko. 0 galdera adibidea da.

Adb.:

0.- Zein ondorio atera daiteke Londreseko Joko Olinpikoei buruz?

- a.- Ondoriorik ez, denbora laburra pasatu da eta.
- b.- Londreseko gune bat berritu egin dela.**
- c.- Ekonomiaren ikuspuntutik, erdipurdiko emaitzak izan direla.

1.- Zer dio Joseba Barandiaranek Jokoen antolakuntzari buruz?

- a.- Herri gutxi dutela antolatzeko gaitasuna.
- b.- Gero eta gehiago direla antolakuntzan parte hartzen duten herriak.
- c.- Londresek hiru aldiz antolatu dituela Joko Olinpikoak.

2.- Azken hiru joko olinpikoetan,

- a.- hotelek irabaziak izan zituzten.
- b.- hotelek behera egin zuten.
- c.- hotelen jarduera oso desberdina izan zen.

3.- Zer dio jarduera ekonomikoari buruz?

- a.- Jokoen aurretik oso handia izan ohi dela.
- b.- Londres osoan onuragarria izan dela.
- c.- Londres ekialdea izan dela kaltetuena.

4.- Nolako aldaketak gertatu dira Stratford aldean?

- a.- Trenak orain lur azpitik pasatzen dira.
- b.- Kutsatuta zeuden lurrak berreskuratu dira.
- c.- Jarduera ekonomikoa mugatu egin da.

5.- Aipatzen direnen artean, zein hirik edo herrik izan du etekinik handiena?

- a.- Montrealek.
- b.- Bartzelonak.
- c.- Greziak.

6.- Nolako balantzea egin du J. Barandiaranek?

- a.- Alde guztietatik bikainak izan direla pentsatzen du.
- b.- Orohar, balantze ezkorra egin du.
- c.- Datozen urteetarako balantze positiboa egin du.

IDATZI ERANTZUNAK

0.- B	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-
--------------	-----	-----	-----	-----	-----	-----

ENTZUMENA

3. TESTUA: Artea kalean

Orain, minutu eta erdi duzu hirugarren testuari dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko. 0 galdera adibidea da.

Adb.:

0.- Non pasatu du asteburua Ainhoak?

- a.- Parisen.
- b.- Kalean, dantza-ikuskizunak ikusten.
- c.- Ez da etxetik mugitu.**

1.- Zer dio kazetariak?

- a.- Ez dagoela arte-lanez gozatzeko aukera handirik.
- b.- Arteaz ez dela asko entzuten.
- c.- Arte-kontzeptuen berri ez daukagula.

2.- Jende askoren ustez,

- a.- artea museoetan gorde behar da.
- b.- arteaz gozatzeko gehiago ordaindu behar da.
- c.- artea museoetan ezkutatutako dago.

3.- Zein da ekimen honen ezaugarria?

- a.- Artista bakoitza bere kabuz aritu behar izatea.
- b.- Taldeko lana funtsezkoa izatea.
- c.- Egitasmoa artea kalera ateratzea baino zerbait gehiago izatea.

4.- Non erakusten dituzte euren lanak artistek?

- a.- Jendearen atentzioa erakarriko duten lekuetan.
- b.- Edonon, ez dute lekurik aukeratzeko.
- c.- Arduradunak proposatutako lekuan.

5.- Zein da erantzun onaren arrazoia?

- a.- Proposamen politikoa egiteko ere balio izatea.
- b.- Eskainitako lanen kalitate ona.
- c.- Artistek, eskatu ordez, eskaini egiten dutela.

6.- Zein izan da lortutako arrakastaren ondorioetako bat?

- a.- Zinemaldian gaiak mintzatuko direla.
- b.- Donostian leku bat eskaini dietela euren lanak erakusteko.
- c.- Donostian errepikatuko dutela.

7.- Zer erantzun dio Itziarrek beste kazetariari?

- a.- Artista batzuk ez direla prest egongo euren lanak kalean ikusteko.
- b.- Izen handiko artistak ados egongo direla egitasmo horrekin.
- c.- Artista handiek ez dutela zer galdu egitasmo horrekin.

IDATZI ERANTZUNAK

0.- C	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
--------------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

IRAKURMENA

1. testua

Egitekoa

Irakurri testua eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena, adibidean egin den bezala. 0 galdera adibidea da.

Idatzi **letra** dagokion laukian.

** Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko duzu. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.*

Opariak

GIZON bat entzun dut kexuka, urteak dira emazteak ez diola oparirik egiten urtebetetzean, hala esan dio telefonoaren bestaldean zuen norbaiti. Eta pentsatu dut badagoela hori baino zerbait larriagoa. Askotan gertatzen da. Bikote baten hasierako urteetan, opari ez materialak izaten dira nagusi, une erromantikoak oparitzen dira: elkarrekin bidaia bat Erromara, luxuzko jatetxe batean afaria, kontzertu berezi baterako sarrerak... Gutxika, opari ez material horiek gorpuzten hasten dira, material bihurtzen. Hasieran liburu edo disko bat izaten da (hor oraindik uneak oparitzen dira, beraz ez dira guztiz materialak), gero kolonia bat (materiala, baina aldi berean etereo) ... Hurrengo fasean materialago den zerbait, alkandora bat, kasu. Eta horren ondoren, oparirik gabeko urteak datoz. Bikoteak ez du zure urtebetetzea ahaztuko eta muxu berezi bat emango dizu goizean, baina ez du burua hautsiko opari orijinal baten bila, besteak beste, "denetarik daukazulako".

Benoa, ba, kexuka ari zen gizonari esango nioke badagoela bikotearen oparirik gabeko urtebetetzea baino egoera larriagorik. Eta horren ondoren datorren fasea da. Benetan kezkatzeko fasea den honetan, bikoteak opari super-erabilgarri bat egingo dizu: iratzargailu bat, gimnasia egiteko aparatu bat (horrek bai egiten duela min), pijama bat ... Kontuz. Alerta gorria. Fase honetan bazaude, jakin ezazu zure bikotearen unibertso erromantikotik kanpo zaudela jada, eta haren familiaren unibertsoan sartu zarela, bere neba-arrebak, koinatua, aitagarreba eta seme-alaben maila berean.

Egoera larrian zaude, baina oraindik berreskura dezakezu zure harremanaren erromantizismoa. Presta ezazu, ahalik eta azkarren, opari ahalik eta inmaterial eta sinbolikoena, (margotu iezaiozu marrubizko mermeladaz bihotz bat goizeko ogi xigortuaren gainean). Antzeko zerbait egiten ez baduzu, arrisku handia daukazu egunen batean belarri eta sudurretako ileak mozteko aparatu elektriko horietako bat jasotzeko opari, eta hor bai, ez dagoela atzera bueltarik.

Karme Jaio, *Deia*, 2012/10/05. Moldatua.

1. testua

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna:

Adb.: 0- Zein da gizonaren kexaren arrazoia?

- a. Berarekin hizketan ari denak ez diola oparirik egin urtebetetzean.
- b. Azken urteetan ohikoa izan denez, ez duela oparirik jaso urtebetetze egunean.**
- c. Azken urteetan emazteak ez duela urtebetetzea gogoratu.

1.- Nolakoak dira opariak bikote baten lehenengo urteetan?

- a.- Dirutan ordaintzen ez diren horietakoak.
- b.- Maitasunari lotutako mementoak.
- c.- Opariak jasotzen dituenarentzat bakarrik balio dutenak.

2.- Zer esan nahi du egileak bigarren fasean opariak gorpuzten direla esaten duenean?

- a.- Momentuak oparizetik opari materialagoak egitera pasatzen gara.
- b.- Opari erromantikoak egin ordez, gorputzari lotutako opariak egiten direla.
- c.- Bikotekideak bestearen itxura gogoan duela opari erromantikoa egitean.

3.- Noiz pizten da alerta gorria?

- a.- Oparien bidez, bikotekidea beste senideen mailan dagoela adierazten denean.
- b.- Senideek bikotekideak baino opari hobeak jasotzen dituztenean.
- c.- Lana ematen duen oparia jasotzen denean.

4.- Nola irteten da alerta gorriko fasetik?

- a.- Ez dago ezer egiterik, egoera atzeraezina da eta.
- b.- Ondo pentsatu ondoren, besteak benetan behar duena oparitzuz.
- c.- Gure alde erromantikoa azaleratzen duten keinuen bidez.

5.- Zein fasetan dago telefonoz hitz egiten ari den gizona?

- a.- Bigarreanean.
- b.- Alerta gorrian.
- c.- Hirugarreanean.

Idatzi erantzunari dagokion letra ondoko laukietan:

0.- B	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-
--------------	-----	-----	-----	-----	-----

IRAKURMENA

2. testua

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako zatiak. Esaldi bat sobera dago. 0 adibidea da.

Idatzi **letra** dagokion laukian.

** Erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 lortuko duzu. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.*

Atezain automatikoa

ETXEKO atezain automatikoak kudeatu eta mantentzen dituen enpresak ohar bat jarri digu atarian: -----(0)-----, asteartean uste dut, goizeko 11.30etatik aurrera tramankulu automatikoak aztertuko dituzte etxez etxe, pisuz pisu, eta, beraz, bizilagunok etxeetan, pisuetan, egon beharra daukagu, bai ala bai, lana errazteko. Oharrak kutsu larderiazkoa du, mehatxuzkoa: ez da zehazten zer gerta dakigukeen agindua betetzen ez badugu, -----(1)----- . Oharra gaztelaniaz dago, jakina, ez euskaraz, ezta ingelesez ere. Alemanieraz ere egon zitekeen idatzita, -----(2)-----.

Zer egin? Bizilagun batekin zerbait adostu? Argi dago oharra idatzi duten burutxo argietan familia eredu bat dagoela: aitatxo (aita, barkatu euskaltzale jatorrak), amatxo eta seme-alaba batzuk; aita lanean, seme-alabak eskolan eta ama -----(3)----- . Ez zaio burutik pasa agian ama ere lanean egon daitekeela eta astegun buruzuri batean, goizeko 11etan, ez dela inor etxean egongo. Edo agian oharra idatzi duenak kontzientzia soziala oso garatuta du, eta etxe guztietan langabeturen bat dagoela uste du. Edo agian oharra idatzi duenak badaki gaur egun aitona-amonak asperturik daudela -----(4)----- . Edo guztiok dugula neskame hegoamerikarra. Baina gure etxean, hogeitxetxo, hogeitx pisu, gutxi gorabehera, -----(5)-----.

Atezain automatikoak konpontzen dituen enpresak bezala, jende askok uste du -----(6)----- bizi garela, emakumezko guztiak ama direla eta gizonezkoak aita, ume txikien gurasoak elkarrekin bizitzen zoriontsu, esan nahi dut. Politikari askok ere, ekonomilariak bezala, -----(7)-----, herritarrak, norbanakoak albo batera utzita, baina baita betiko familia tradizioarekin sartzen ez direnak ahantziz ere. Bien bitartean bizitza bere bidetik doa betiko moduan, bere hartan.

Ondoko auzokideak, -----(8)-----, ni etxean izango naiz eta.

Rikardo Arregi, *Deia*, 2012/11/28. Moldatua.

2. testua

Jarri testu-zati bakoitza dagokion hutsunean. Idatzi erantzunak beheko laukian, adibidean egiten den bezala. Esaldi bat sobera dago.

a. gogo nazien garaietara joan baitzitzaidan bat-batean

b. eredu hori minoritarioa da

c. familiaz hitz egiten dute etengabe

d. ez dakit zein egunetan

e. oraindik guztiok aipatutako familia eredu horretan

f. gauza hauetarako, eta beste askotarako, etxean

g. adineko emakume batek, bere giltzak utzi dizkit

h. baina ezin gauza onik espero

i. ezer egin barik, boluntario eta beti prest gauza hauetarako

j. horregatik baztertzen ditugu

Idatzi erantzunari dagokion letra ondoko laukietan:

0.- D	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-	8.-
--------------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----

IRAKURMENA

3. testua

Ariketa honek bi egiteko ditu. Arretaz irakurri:

1. Egitekoa

Irakurri testua eta testuan esaten dena kontuan hartuta aukeratu erantzun zuzenak, adibidean egin den bezala. 0 galdera adibidea da.

2. Egitekoa

Ematen diren azalpenei dagozkien **hitzak** testuan aurkitu behar dituzu. Kontuan hartu aurkitu behar dituzun hitzak deklinatuta edo aditza jokatuta egon daitezkeela testuan.

Idatzi **hitz bakoitza** dagokion laukian. 0 adibidea da.

** Erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko duzu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.*

IZARO IRLAKO ENIGMA

Ormaetxeko Kaxton Bermeoko arrantzalea zen eta sorginekin ezkutuko itunak egiten zituela leporatzen zion hainbatek. Itsasoan zehar egindako milaka arrantzaldietan sekula ere ez zuten berak ez bere ontzi zaharrak inolako ezbeharrik izan, inork ez zuen, behintzat, batere gogoratzen. Eta patu horretan oinarritzen ziren, hain zuzen ere, berari buruzko esamesak.

Egia esan, Ormaetxeko gazteak ezin zuen zorte hobetik izan. Itsasaldi txarrenetan eta ekaitz zakarrenetan ere, ontzi txikitxoak inolako kalterik nozitu gabe egiten zion aurre itsasoaren erasoari. Itsasoa haserre egoten zenetan, itsasontzi bermeotar guztiak presaka itzultzen ziren portuaren babesera, arrain txiki bat ere harrapatu gabe. Kaxtonen ontzi xeheak, ordea, arrainez gainezka egon arte ez zuen porturako bidea hartzen.

Bermeon esaten zenez, zorioneko arrantzaleak bere ontziko lema hartu eta kostaldetik urrundu bezain laster, kalatxoriak saldoka joaten ziren atzetik eta, berehalakoan, mota guztietako arrainez betetzen zizkioten sareak. Beste batzuen zurrumurruen arabera, arrain gutxi zegoenean izugarritzko ekaitzak sortarazten zituzten sorginek, gainerako arrantzaleak portutik ez irteteko. Horrela, bada, lehiakiderik gabe, Kaxtonek arrain apurrak patxada osoz harrapatu ahal zituen.

Edonola ere, Kaxtonen zorte onari buruzko kontuak ez ziren hutsetik sortu. Izan ere, Ogoño mendian Laida izeneko begi bakardun lamia polita bizi zen, eta Kaxtonekin guztiz maiteminduta zegoen. Kaxtonek ez zuen maite, baina matemindu-plantak egiten zitueneguz, Laidak ezagutzen zituen maina guztiak erabiltzen zituen maitalearen sareetara arrainak bideratzeko. Horrela gertatu zen hainbat urtetan zehar.

Arrainak metaka harrapatu eta harrapatu, Kaxton aberastu egin zen, txalupatxoa saldu eta itsasontzi ederra erosi zuen. Gainera, Maddalen izena zuen emakume aberats batekin maitemindu zen, eta, bere ondasunak handitu nahirik, harekin ezkontzea deliberatu zuen. Arrantzan izaten zuen zorte ona eta laguntza magikoei eusteko, Laidari bere ezkontzeko asmoa ezkututzen saiatu zen. Baina ez zen denbora luzerik igaro lamiak arrantzalea zintzo jokatzen ez zela ari igarri arte. Bere burua saldurik ikusirik, milaka birao eta madarikapen jaurti zituen maitalearen kontra. Hurrengo asteetan Ogoño labarretan geratu zen, tamaina hartako lotsagabekeriak merezi zuen zigorra prestatzen...

Jon Lezea, *Sorginak eta itsasoa*.
Bilbao, 1992. Moldatua.

3. testua

1. egitekoa.- Aukeratu erantzun zuzena:

Adb.: 0- Zer leporatzen zioten hainbatek Kaxtoni?

- a. Istripurik ez izatea.
- b. Sorginekin harremanak izatea.**
- d. Itsasontzi zaharregia izatea.

1- Zertan oinarritzen ziren Kaxtoni buruzko esamesak?

- a. Arrantzaleak zuen zorte onean.
- b. Gaztearen trebetasunean.
- c. Ekaitzak aurreikusteko gaitasunean.

2- Zer aipatzen zuten Kaxtonen harrapaketei buruz?

- a. Kalatxoriek arrantza non zegoen adierazten ziotela Kaxtoni.
- b. Sorginei esker arrain piloa aurkitzen zuela kostaldetik hurbil.
- c. Sorginek laguntzen ziotela Kaxtoni ekaitzen bidez.

3- Zein zen mutilaren zorte onaren benetako arrazoa?

- a. Bermeotarraren zintzotasuna.
- b. Kaxtonen sentimenduen zintzotasuna.
- c. Laida Kaxtonekin maiteminduta egotea.

4- Zein izan zen Laidaren maitemina onduko?

- a. Arrantzalea Maddalenekin maitemindu zela.
- b. Kaxtonen aberastasuna.
- c. Kaxton denbora luzez zintzo jokatzea.

Idatzi galderari dagokion letra ondoko laukietan:

0.- B	1.-	2.-	3.-	4.-
--------------	-----	-----	-----	-----

2. egitekoa.-

Ondoren azalpen batzuk dituzu. Azalpen bakoitzari dagokion **hitza** testuan aurkitu behar duzu. Gero hitza ondoko laukian idatzi. Kontuan hartu aurkitu behar duzun hitza deklinatuta edo aditza jokatuta egon daitekeela testuan.

0 adibidea da.

Adb.: 0. (1. paragrafoan) Istripua edo arazoa.	ezbeharririk
1.- (2. paragrafoan): Sinplea edo balio handirik gabekoa. Umila.	
2.- (3. paragrafoan): Kezka edo presarik eza.	
3.- (5. paragrafoan): Ustearen edo intuizioaren bidez zerbaitetaz konturatu.	